

## "BILBAO HIRI GAZTEA" UDALAREN 2024RA ARTEKO GAZTE PLANA EGITEKO BIGARREN FASEA HASTEKOTAN DA, ETA BILBOKO ALKATEAK EGIN DU AURKEZPENA

- Gazteriaren parte hartzea eta gazteekiko lankidetzaz izango da ardatz nagusia Plana lantzeko, eta 2022an aurkeztuko da, Gazteriaren Europar Urtean, hain zuzen.
- Talde eragile bat eratu da adin bateko eta besteko 6 gazterekin, zein bizitzako bere aldian dagoela, eta erreferente dinamizatzaileak izango dira Plana egitean.
- Udalak albait iritzi eta ideia gehien jaso nahi ditu, eta, horretarako, entzuteko eta parte hartzeko gune mugikor bat izango da, gazteak Uriko 8 barrutietan bildu ohi diren lekuetan, uriko 8 barrutietan, haien proposamenak, ideiak eta iritziak jasotzeko.
- Ideiak biltzeko kanal gisa baliatuko dira Bilboko Udalak gazteentzat dituen sare sozialak, alegia, Bilbao Gazterenak, eta orobat talde eragilea eratuko duten kideen sare sozialak.
- Azaroan, alderatzeko jardunaldi bat egingo da, herritarrentzat irekia, eta Udalak abian jarriko ditu Gazteen Parte-hartze Foroa eta Plana Koordinatzeko Mahaia.

(Bilbo, 2021eko urriaren 4a).- Bilboko Udalak abian jarri du "**Bilbo Hiri Gaztea**" egiteko bigarren fasea, alegia, Udalak 2024ra arte izango duen Gazte Plana. Gazteriaren **parte hartzea eta gazteekiko lankidetzaz** izango dira ardatz nagusia Plana lantzeko, eta Eusko Jaurlaritzak ere lagunduko du. 2022ko lehen hiruhilekoan aurkeztuko da, Gazteriaren Europar Urtean, egin-eginean.

**Juan Mari Aburto** Bilboko alkateak, **Itxaso Erroteta** Gazteria eta Kirol Saileko zinegotziarekin batera, bigarren epe honetako ekintzak aurkeztu ditu, eta hau gogorarazi: "*Bilbok uri moduan duen xede edo desafioetako bat da uri erakargarria izatea gazteentzat; nahi dugu gazteek Bilbo hauta dezaten formatzeko, lan egiteko, ekintzaile izateko, dibertitzeko eta nahi duten familia-modua osatzeko; azken batean, nahi dugu Bilbo izatea beren bizi proiektua hasi, garatu eta osatuko duten uria; gogobeteko dituen proiektu bat, alderdi guztietan zorientsu bihurtuko dituen*". Alde horretatik, Aburtok berriro gogorarazi du zeinen garrantzitsua den parte hartzea, lankidetzan aritzea eta elkarrekin aritzea: "*ez da soilik gazteentzat eraikitzea; haiekin batera eraiki behar dugu; haiek gidatu behar gaituzte, haiek direlako beren errealitate, beharrian eta gurariekin konektatu behar gaituztenak*".

Alkateak, gainera, azaldu du prozesu honen xedea dela "*gida*" moduko dokumentu bat diseinatzea gazte politiketarako; beste hau gaineratu du: "*Plan bizi, arin eta ireki bat izango da, eta egokitu egin nahi dugu, zabaldu eta hobetu denboran zehar*".

Plana egiteko bigarren zati honetako lehen ekintza izan da Udalak **GAZTE TALDE ERAGILEA** sortu izana, adin bateko eta besteko 6 gazterekin, zeintzuk bizitzako aldi batean edo bestean baitaude. Alde horretatik, Erroteta zinegotziak hau aipatu du: *"gure talde erreferentea izango DA, oso modu ekinean lagunduz Bilboko gazteen errealitatea bideratzen"*, eta, halaber, gaineratu du: *"talde askotariko bat sortu dugu, neskek eta mutilek eratua, zeinek bere ardurak eta errealitate txikiak dituela, baina berdin konpromisoa harturik, Bilbo gazteago eta hobe bat eraikitzen laguntzarren"*.

Talde eragileko kideek parte hartu dute gaur goizean aurkezpenean, eta haietako bat plana egiteko lehen fasean parte hartutakoa da; Aida **García Orio, 24 urte dituenak** hitza hartu du Udalari eskerrak emateko prozesu hau abian jartzeagatik eta gazteei entzuteagatik eta parte hartzeko gune eta tresna eraginkor eta benetakoak eskaintzeagatik. Aida dagoeneko parte hartua zen plana egiteko lehen fasean, gizarte-hezitzailea da, eta masterra du esku-hartze sozialean, kulturean eta aniztasunean. Esperientzia du boluntariorizan, eta gizarte- eta hezkuntza-arloko Europako partaidetza-prozesuetan parte hartu du.

Talde honek eta Itxaso Erroteta Gazteria eta Kirol Saileko zinegotziak eta sail horretako eta Bilboko Udaleko beste sail batzuetako hainbat langilek **6 jardunalditan** parte hartu dute **Bilbo Hiri Gaztea** plana definitzeko lanean aurrera egitearren. Jardunaldi horietako lehena bihar izango da, urriaren 5ean, martitzenarekin, eta gainerako jardunaldietan metodologia arin eta lankidetzaz bidez eraikitzeak baliatuko dira.

## **PARTE HARTZEKO BESTE EKINTZA BATZUK**

Prozesuaren helburua, beraz, jardun lerro batzuk eta besteak alderatzea eta aztertzea da, eta ahalik eta ekarpen gehien jasotzea gazteengandik. Horretarako, talde eragilearen dinamikez gain, honako beste ekintza hauek garatuko dira:

- **Gune mugikor bat: urriaren 8tik (astelehena) azaroaren 21era (domeka)**, gune mugikor bat aterako da kalera 15 eta 30 urte bitarteko 100 bat gazteri iritzia eskatzera, ahalik eta askotarikoenak hautatuz, adinari, sexuari, kultur nortasunari, sexu joerari eta dibertsitate funtzionalari dagokionez. Horretarako, gune mugikor hori uriko 8 barrutietan zehar ibiliko da, gazteak bildu ohi diren lekuetan, hala nola ikastetxe, gaztegunek, saltoki, plaza, aisialdiko gune eta beste.
- **Sare sozialak:** Gune mugikor horrekin batera, Bilbao Gazteren sare sozialak baliatuko dira, bai eta talde eragilea osatzen duten pertsonenak ere, gazteek parte hartzeko eta haiei entzuteko dauden eremua zabaltzarren Planerako ekarpenak egin nahi dituzten beste gazte batzuentzat.
- **Alderatze jardunaldia:** azaroan, alderatze jardunaldi bat izango da, herritar guztiei irekia, eta han aurkeztuko dira prozesu osoan zehar jasotako ondorioak.
- **Koordinazio mahaia:** tresna honen bidez, "**Bilbo Gazte Hiria**" planaren jarraipena egin ahal izango da eta nola betetzen den neurtu.
- **Gazteen parte-hartze foroa:** Udalak foro hau abian jarriko du, denboran iraun dezan, eta aldian-aldian gazteen errealitatera hurbiltzeko baliatzeko.

## LEHENENGO FASEA, URTARRILETIK MARTXORA

Bigarren fase honen ondorioak eta ideiak lehenengo parte hartze eta alderatze fasean lortutakoei gehituko zaizkie; lehen fase horretan, 15 eta 30 urte bitarteko 43 gaztek parte hartu zuten, 2021eko urtarriletik martxora.

Lehen fase horretan, 3 hezkuntza-arlori ekin zitzaion: **gazteria beregain jarria, gazteria ekina eta gazteria engaiatua**, eta areago landuko dira orain.

Lehen faseko jardunaldietako hondarrekoa izan zen ondorioak aurkeztekoa; Bilboko alkatea izan zen han, aurkezpenean, eta hitza eman zuen aurrerantzean ere Udalak gazteei aktiboki entzuteko eta gazteek parte hartzeko guneak antolatuko zituela, orain hasi berria bezalakoak.

## EL ALCALDE DE BILBAO PRESENTA LA SEGUNDA FASE DE LA ELABORACIÓN DE “BILBAO HIRI GAZTE”, EL PLAN JUVENIL MUNICIPAL HASTA 2024

- La participación y la colaboración con la juventud seguirá siendo el eje principal sobre el que se construirá el Plan, que se presentará durante el primer trimestre de 2022, coincidiendo con el Año Europeo de la Juventud.
- Se ha conformado un grupo motor con 6 jóvenes de edades y en momentos vitales diferentes, que se convertirán en referentes dinamizadores de la elaboración del Plan.
- El Ayuntamiento quiere recoger el mayor número de opiniones e ideas posibles, para ello un dispositivo móvil de escucha y participación recorrerá los espacios en los que habitualmente se encuentra las y los jóvenes en los 8 distritos de la Villa para recoger sus propuestas, ideas u opiniones.
- Como canales de recogida de ideas se usarán también las redes sociales que el Ayuntamiento bilbaino dirige a las y los jóvenes, Bilbao Gazte, y las de las y los integrantes del grupo motor.
- En noviembre, se desarrollará una jornada de contraste abierta a la ciudadanía y el Ayuntamiento pondrá en marcha el Foro de Participación Joven y la Mesa de Coordinación del Plan.

(Bilbao, 4 de octubre de 2021).- El Ayuntamiento de Bilbao pone en marcha la segunda fase de elaboración del “**Bilbao Hiri Gaztea**”, el Plan Juvenil del Consistorio hasta 2024. La **participación** y la **colaboración** con la juventud seguirá siendo el eje principal sobre el que se construirá el Plan, que cuenta con la colaboración del Gobierno vasco y que se presentará durante el primer trimestre de 2022, coincidiendo con el Año Europeo de la Juventud.

El Alcalde de Bilbao, **Juan Mari Aburto**, acompañado de la Concejala de Juventud y Deporte, **Itxaso Erroteta**, ha presentado las acciones de esta segunda etapa y ha recordado que “*uno de los objetivos y retos como ciudad es hacer de Bilbao una Villa atractiva para las y los jóvenes, queremos ser un lugar que elijan para formarse, trabajar, emprender, divertirse y formar aquella familia que quieran; en definitiva, queremos ser la ciudad en la que inicien, desarrollen y completen su proyecto vital, un proyecto que les satisfaga y les haga felices en todos los aspectos*”. En este sentido, Aburto ha insistido en la importancia de la participación, del trabajo colaborativo y conjunto, “*no podemos construir solo para las y los jóvenes, necesitamos hacerlo también con ellas y con ellos; son quienes nos tienen que guiar, porque son quienes nos conectan con su realidad, sus necesidades y sus deseos*”.

El Alcalde ha explicado además que el proceso tiene como objetivo diseñar un documento “*guía*” en las políticas juveniles, pero ha concretado que “*será un Plan vivo, ágil y abierto, que queremos ir adaptando, ampliando y mejorando a lo largo del tiempo*”.

Como primera acción de esta segunda parte de la elaboración del Plan, el Ayuntamiento ha creado un **GRUPO MOTOR JUVENIL**, con 6 jóvenes de edades y en momentos vitales diferentes. En este sentido, la Concejala Erroteta ha señalado que *“se van a convertir en nuestro grupo referente, el que nos va a ayudar de manera muy activa a canalizar la realidad juvenil de Bilbao”* y ha añadido que *“hemos creado un grupo diverso, de chicas y chicos diferentes, con diversas inquietudes y pequeñas realidades, pero comprometidos y comprometidas de igual forma por ayudarnos a avanzar en la construcción de un Bilbao más joven y mejor”*.

Las y los miembros del grupo motor han participado en la presentación de esta mañana, y una de sus integrantes, miembro del grupo que ha participado en la primera fase de la elaboración de este Plan; Aida García Orio de 24 años, ha intervenido para agradecer al Consistorio la puesta en marcha de este proceso, por escucharles y facilitarles herramientas y espacios de participación efectivos y reales. Aida, ya participó en la primera fase de la elaboración, es educadora social y tiene un máster en intervención social, cultura y diversidad. Cuenta con experiencia en voluntariado y y ha participado en procesos participativos europeos de índole socio educativa.

Este grupo, junto a la Concejala de Juventud y Deporte Itxaso Erroteta y personal del área de Juventud y Deporte y de otras áreas del Ayuntamiento, trabajará durante **6 sesiones** para avanzar en la definición de *“Bilbao Hiri Gaztea”*. La primera de las jornadas se desarrollará mañana 5 de octubre, martes, y en todas ellas se usarán metodologías ágiles y de construcción colaborativa.

## **MÁS ACCIONES PARTICIPATIVAS**

El objetivo del proceso es contrastar diferentes líneas de acción y recoger el mayor número posible de aportaciones juveniles. Para ello, además de las dinámicas del grupo motor, se desarrollarán otras acciones:

- **Dispositivo móvil:** entre el **lunes 8 y el domingo 21 de noviembre**, un dispositivo móvil saldrá a la calle y recogerá las opiniones de alrededor de 100 jóvenes de entre 15 y 30 años, que responderán a criterios que proporcionen la mayor diversidad posible en lo que se refiere a edad, sexo, identidad cultural, orientación sexual y diversidad funcional. Para ello, este dispositivo móvil recorrerá los 8 distritos de la Villa, concretamente los espacios en los que habitualmente se dan cita las y los jóvenes como centros educativos, gaztegunes, centros comerciales, plaza o zonas de ocio, entre otros.
- **Redes Sociales:** De forma paralela al dispositivo móvil, se utilizarán las redes sociales de Bilbao Gazte y de las personas que conforman el grupo motor para ampliar el ámbito de escucha y participación de otras personas jóvenes interesadas en aportar al Plan.
- **Jornada de contraste:** en el mes de noviembre se organizará una jornada de contraste abierta a toda la ciudadanía, en la que se presentarán las conclusiones recogidas a lo largo de todo el proceso.

- **Mesa de Coordinación:** será la herramienta que permita, entre otros, el seguimiento y medición de cumplimiento del Plan “**Bilbao Hiri Gazte**”.
- **Foro de Participación Joven:** el Ayuntamiento pondrá en marcha este Foro con idea de que permanezca en el tiempo y que le sirva para mantener y acercarse de manera periódica a la realidad juvenil.

## **PRIMERA FASE, DE ENERO A MARZO**

La conclusiones e ideas de esta segunda fase se sumarán a las que ya se obtuvieron tras la primera fase de participación y contraste, que se desarrolló con 43 jóvenes, de entre 15 y 30, entre enero y marzo de este año 2021.

En esa primera fase se abordarán 3 ámbitos de actuación: **juventud emancipada, juventud activa y juventud comprometida**, en los que ahora se ahondará aun más.

La última de las jorandas de la primera fase fue la de exposición de las conclusiones; estuvo presidida por el Alcalde de Bilbao, quien se comprometió a seguir articulando espacios de escucha activa y participación juvenil, como el que acaba de comenzar.